

Mugaz gaindiko PATRIM+ egonaldi artistikoaren egunerokoa

2019/06/28

Patrim erresidentzia artistikoa: Aste bat falta da Nathalia Heim artista Igartubeitira etortzeko

Astebete barru iritsiko da Nathalia Heim artista Igartubeiti Baserri Museora, uztailaren 8tik abuztuaren 4ra bitarte erresidentzia artistikoa burutzeko helburuarekin.

Nathalia Heimek (Natheim) arte bisualaren alorrean lan egiten du, Argentinan, Frantzia, Italian eta Espainian 2010etik lanak konposatzen eta erakusten. Giza Komunikazio (UBA) ikasketak burutu zituen, Argazkilaria Profesionala, irakaslea eta Kultur Kudeatzailea da.

Igartubeitiren kasuan, artistak bere lanean lurraldeko emakumeei eta bizi diren espazioari protagonismoa ematea proposatzen du, PATRIM+ mugaz gaindiko erresidentziaren helburuei erantzunez.

Nolakoa izango ote da Nathaliaren esperientzia baserrian eta gure inguruan? Astero kontatuko dizuegu Igartubeitiko webgunean bere proiektuaren inguruan egiten dituen ekintzen, lanen edota hasunarketen berri.

Erresidentzia hau Patrim+ sarearen barnean kokatzen den proiektu bat da. PATRIM museo, ekomuseo eta ondarearen interpretazio zentroen mugaz gaindiko sare bat da. Honen helburuetako bat da arte- eta ondare-arloen arteko bidegurutze-espazioak sustatzea, kultura garaikidean kokatutako diskurtso berriak sortuz eta paisaia eraldatzearen, hiri-landa binomioaren edo ingurumen- eta ekonomia-krisiaren inguruko egungo eztabaidetan oinarrituz.

Aldi berean PATRIM+ artista-egonaldiak publikoak konektatzea eta publiko berrien bila joatea bilatzen du. Proiektu honen hartzailea gazteria eta kultura- zein arte-eskaintzatik urrun dagoen jendea da. Egonaldiaren asmoa da inplikaturako hiru zentroen lurraldeko biztanleen, artisten, artelan baten eta sorkuntza-prozesuaren arteko topaketa erraztea da, presentzia artistiko sendo batean oinarrituta.

2019/07/12

Dagoeneko hemen da Nathalia Heim artista eta bere proiektuari ekin dio

Lehenengo sentsazio eta harremanak

Astlehenean iritsi bezain laster, ingurua ezagutzeari ekin zion. Lehenik eta behin Igartubeiti baserria ezagutu zuen, bertan baserriaren nondik norakoak azaldu genizkion bertako historia eta kulturara hurbilduz. Aipatzen duenez, aurrez berak dokumentu ezberdinetan kontsultatuz eraiki zuen baserriaren ideia ez da errealitatearekin bat etorri, eta baserrien egitura eta arkitektura bertatik ezagutzean harrigarria iruditu zaiola aipatu digu.

Bere proiektuaren lan ildoak bailarako emakumeen bizipenak eta narrazioak oinarritzat hartuta, emakume hauek euren ingurunearekin erlazionatzeko duten modua argazki artistiko batean irudikatzea izango da.

Lehen aste honetan zehar bailarako elkarte edota norbanako emakumeekin harremanetan jarri da, bere proiekturako bizipen eta narrazio horiek biltzeko. Esate baterako, Urola Garaiaiko Emakumeen etxekoekin eta Ormaiztegio jubilatutaldeen batekin elkartu da.

Bailarari begiratzeko beste modu bat

Hasiera batean, espazioaren sakabanaketa deigarria egin bazitzaion ere, elkarren arteko kohesioa eta harremana egunerokotasunean etengabea dela nabarmendu du. Eta mugikortasunaren auzia “inplizituki” edo “esplizituki” agerian dagoenaren sentsazioa du. Guk barneratuta badugu ere, berari deigarria iruditu zaio bailaran zehar erlazionatzeko eta mugitzeko dagoen ohitura. Eta honi loturik, aipagarria iruditu zaio, espazio horiek naturarekiko harremanean garatu izana. Eta azkenik, bailarari loturik, espazio txiki baina sakabanatua den honetan, harremantzeko eta elkartzeko baliabide ugari daudela iruditu zaio eta honek bertan bizi garen jendearen “intenzionalitatearen” berri ematen duela hausnartu du.

Hauetxek aste honetan Nathalia Heim artistak jaso dituen bizipen eta hausnarketak. Askotan, “kanpoko” begirada batek ohikotzat eta naturaltzat ditugun joeren inguruan hausnartzeko bidea irekitzen duela esan daiteke.

2019/07/19

Nathalia Heim-en erresidentzia artistikoak Urola Garaiko eta Goierriko emakumeen errealitatera murgiltzen du

Azken aste honetan Nathalia Heim artista burubelarri ibili da bere proiektuari jarraipena ematen.

Alde batetik, bailarako hainbat emakume eta eragilerekin elkarrizketa ezberdinak egin ditu, landa eremuan emakume izatearen inguruan beraiek dituzten bizipenak, historiak, bitxikeriak, eta abar jasoz. Esate baterako, Itsasoko Harzitizabal baserrikoekin elkartu da, gai hauen inguruan mintzatzeko eta aldi berean, berak zioen moduan, baserriaz eta bere jendeaz gozatzeko aukera izan du, goiz ederra igaroaz.

Honekin batera, elkarrizketa eta solasaldi hauetatik ateratzen dituen bere hausnarketa eta pertzeptzioak arlo artistikora eramaten ditu, natur inguruneko elementuei argazkiak aterata forma eta materialtasuna emanez. Berak aipatu digunez, orain arlo estetikoa lantzen ari da, elkarrizketetatik atera diren hainbat gai abiapuntu bezala hartuz, esaterako: mendiaren eta



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



Interreg
POCTEFA
PATRIM+



itsasoaren presentzia hainbat emakumeen memorian, baserriko ekonomia industriako lanarekin uztartzea edota naturaren inguruko jakinduriaren galera.

Bere proiektua burutzeko Nathaliak darabilen metodologia "landa-lanean" edo "lekuko-lanean" oinarritzen da besteak beste, informazioa biltzeko eta elkarrizketak egiteko. Baina "lan formal" egiteaz gain, landa lanak bailara eta bertako herri eta hiriak ezagutzeko abagunea ere ematen du, eta halaxe ibili da Nathalia Heim artista, Tolosako azoka eta erromeriak ezagutzen, hau ere bailara ezagutzeko beste modu bat baita.

25/07/2019

Mujeres vascas, mujeres con historia

Cuando Nathalia Heim vio la convocatoria de residencia PATRIM+ supo que era para ella. Cuando llegó pensó que el camino quizás no sería fácil, hoy hace balance y celebra todo lo que ha aprendido y explorado durante la residencia PATRIM+ en Igartubeiti en este texto.

Ya a mitad de camino de la residencia artística en el Museo Igartubeiti, y un poco más también, hago una pausa para repensar(me), tomar impulso y seguir. Siempre digo que desde que vi publicada la convocatoria a las residencias transfronterizas PATRIM+, estuve segura que quería participar y que ese espacio de creación, de algún modo, era para mí. Si bien confiaba en mi formación y recorrido artístico, puedo decir que la corazonada era más emocional. No tengo raíces vascas (mi abuela siempre nos dice que ella es vasca, pero nunca pude saberlo con seguridad, aunque ella está orgullosa en afirmarlo), no obstante es una tierra que siempre me llamó y, sobre todo, sus mujeres.

Durante junio estuve en Argentina, todo el mes con los míos. Esos oasis que se abren una vez por año para las aves de paso como yo. Al regreso, hice escala en Madrid cuatro días y me tomé el tren a Zumárraga, donde me irían a buscar. El hierro trémulo avisaba que una experiencia de vida nueva empezaba, mezclándose con varias sensaciones, muchas ajenas a ella (despedidas, no tener tierra donde echar raíces, ganas infinitas de hacer y crear, entre otros). Estaba nerviosa, claro que sí. Estaba nerviosa, no quería hablar con nadie, menos quedarme dormida por miedo a pasarme, y tenía mucho sueño. Después de todo yo venía a trabajar sobre ese concepto -del cual descreía- sobre la mujer vasca, se decían muchas cosas de ellas, como por ejemplo que eran "cerradas", ¿y si era verdad? ¿y si me tocaba "remar en dulce de leche"? Eso no me daba miedo, pero por las dudas había decidido no reírme demasiado, sé que me río mucho y pensé que quizás no iba a caer demasiado bien.

Me recibió Kizkitza, del Museo Igartubeiti. Me esperaba detrás de los controles del tren. No fuimos muy efusivas, sí muy correctas y estuvo muy bien. Éramos nuevas en esto y seguramente ninguna de las dos quería fallar. Llegamos a Ormaiztegui, centro de acción junto con Ezkio para avanzar con el proyecto y desde donde empezó a tejerse una red de mujeres

poderosas que me ayudaron mucho en el proceso. La primera semana iba acercándome a toda mujer que me cruzaba para explicarle que estaba realizando una residencia en la cual me proponía sacar el foco del concepto existente sobre la mujer vasca, para poder indagar mediante entrevistas individuales qué significaba para cada una ser mujer vasca, cómo se vinculaba eso con el territorio, natural e industrial, y con su historia personal. Esa semana obtuve la cantidad de "no" que me hicieron pensar que podría ser un poco áspero el camino. Pero, no sé bien en qué momento, algo se destrabó. Miento, sí sé. Kizkitza y Marta, también con la colaboración de Lurdes, generaron contactos claves: presenté el proyecto en la Casa del Jubilado, en la Casa de las Mujeres, a Ane de la Secretaría de Kultura, entre otros espacios, y empezaron a aparecer las primeras mujeres valientes que se acercaban para construir un espacio de charla informal, no por eso menos serio.

Hoy ya llevo hechas 17 entrevistas, 17 entrevistas únicas e irrepetibles como cada una de las interlocutoras. Hablamos sobre la mujer vasca, sobre la infancia, la adolescencia y la adultez, sobre ser madre, sobre ser nieta y abuela, sobre vínculos que nos atraviesan tanto como el idioma, sí, también hablamos sobre el euskera. En cada encuentro descubro una nueva mujer, ninguna se parece a otra, y eso lo celebro. Por estos días voy confirmando que no hay una mujer vasca, hay mujeres vascas y sobre todo mujeres con historia.

Luego de las entrevistas, nos encontramos nuevamente para hacer sus retratos, fotografías que puedan traducir poéticamente lo compartido en la conversación previa, en la que aparecen elementos de alto contenido simbólico para cada una. Esta parte del proceso comenzó a fines de la semana pasada y continuará toda esta semana. Tanto las entrevistas como las fotografías nos encuentran, a ellas y a mí, a pesar de las diferencias. Siento que las puedo comprender, que las puedo escuchar bien y que no tengo más que agradecer el canal de confianza y respeto que se genera en tan poco tiempo. De creer que no iba a contar con sus presencias en este proyecto a ser ya casi 20 protagonistas, claramente hay una distancia tan amplia como la satisfacción que me da. Con ellas ya pasé del caserío a la industria, de la calle a la playa, de los pueblos al monte y así seguirá hasta la exposición en el Museo Igartubeiti, donde nos miraremos a los ojos, sabiendo que aquí estamos, presentes, las unas para las otras.

2019/08/05

Nathalia Heim artistak emakumeek lurraldearekin duten harreman poetikoa irudikatzen du Igartubeiti museoan PATRIM+ erresidentziaren barne

Artista bisualak Patrim+ mugaz gaindiko erresidentzian burututako bere lanaren lehen fasea amaitu du eta irailean Igartubeiti Museoan (Ezkio, Gipuzkoa), elkarlaneko instalazio baten bitartez, esku-hartze batean bihurtuko da. Jarduera hau pirinioetako emakumeen kartografi berriaren parte izango da, Ariège eta Haute-Garonne arteko europar lankidetzaren proiektuaren barne, Frantzia, Euskadin, Aragoi eta Katalunian.

18 emakumeek beraien lurraldearekiko bizipenak partekatu dituzte Nathalia Heim artista bisualarekin, Ezkioko Igartubeiti Baserri Museoa, abuztuak 3an amaitzen den Patrim+ mugaz gaindiko erresidentziaren barne.

Elkarrizketa pertsonaletatik abiatzen den prozesu bat da non Heimek emakumeek beraien historiarekiko eta inguruarekiko ezartzen dituzten emozio zein loturen argazki erretratu itxurako itzulpen poetikoa egiten duen.

Jarduera hau PATRIM +, INTERREG POCTEFA mugaz gaindiko lankidetza programaren barne txertatzen den proiektuaren parte da eta aldi berean EGEF-ek, Eskualde Garapeneko Europako Funtsak finantzatzen du. Bere bazkideak Frantziako, Ariège eta Haute-Garonneko, Euskadiko, Aragoiko eta Kataluniako landa eta mendi inguruneetan kokatuak daude. Beraien helburua da etengabe aldatzen ari den ondare natural eta kulturala balioan jartzea.

Nathalia Heimek Igartubeitin lana burutu ondoren, Madrilen jarraituko du abuztuan bere proiektua garatzen. Irailean Igartubeiti Museora itzuliko da, emakume protagonisten parte hartzearekin sortuko duen instalazioa burutzeko.

Lurraldearekiko eta generoaren ikuspegiarekiko loturaren elementu amankomunetik abiatuz, artistak modu sinbolikoan berrinterpretazio anitzak ahalbideratzen dituzten pertsona bakoitzaren historiaren berezitasuna azpimarratzen du, Patrim+ egitasmoan pirineoetako emakumeen kartografia berriaren parte izatera helduz.

Nathalia Heimek Buenos Aireseko Unibertsitatean Komikazio Soziala ikasi zuen, artista bisuala, argazkilaria profesionala eta kultur kudeatzailea da. 2011ean Cordobako “Bienal de Fotografía”n, suspertzen ari den artista gisa nabarmendu zuten. Bere “Haches” lana Madrilgo Theredoo, Galerian ipini dute ikusgai eta Lens Culture-k, Vendômeen Prix Mark Grosset de Promenades Photographiques-ek eta Bienal de Foto Documental –ek (MUNT, Argentina) ere aukeratu zuten.

Mugaz gaindiko ikuspegia

Nathalia Heimek garatzen ari duen prozesu artistikoa PATRIM+ proiektuko erresidentzidentziaren barne kokatzen da, uda honetan, Pirineoaren bi aldeetako hiru interpretazio zentroetan eta museoetan burutu dena: Le Château de Seix–Centre d’Interprétation du Patrimoine du Couserans (Ariège, Frantzia), Espacio Pirineos–Centro de Creación y Cultura del Pirineo Graus-en (Huesca) eta Ezkioko Igartubeiti Baserri Museoa.

Helburuetako bat da arte- eta ondare-arloen arteko bidegurutze-espazioak sustatzea, kultura garaikidean kokatutako diskurtso berriak sortuz eta paisaia eraldatzearen, hiri-landa binomioaren edo ingurumen- eta ekonomia-krisiaren inguruko egungo eztabaidetan oinarrituz.

Publikoak konektatzea eta publiko berrien bila joatea ere bilatzen du. Proiektu honen hartzailea gazteria eta kultura- zein arte-eskaintzatik urrun dagoen jendea da.



Egonaldiaren asmoa da inplikaturako hiru zentroyen lurraldeko biztanleen, artisten, artelan baten eta sorkuntza-prozesuaren arteko topaketa erraztea da, presentzia artistiko sendo batean oinarrituta.

PATRIM+

Patrim, museo, ekomuseo eta ondarearen interpretazio zentroyen mugaz gaindiko sare bat da. Sarearen helburua Pirinioetako natura- eta kultura-ondarea nabarmentzea da, mugaz bi aldeetara, garapen jasagarriko ikuspegi bateratuak baliatuz

PATRIM+ egitasmoa INTERREG POCTEFA mugaz gaindiko lankidetzako programan kokatzen da eta EGEF-ek, Eskualde Garapenerako Europako Funtsak finantzatzen du.

INTERREG V-A, Espainia-Frantzia-Andorra Lankidetzako Programa 2014-2020, Espainia-Frantzia-Andorra arteko mugalderako lekuen arteko sare sozial eta ekonomikoa sendotzea du helburu. Laguntza hau mugalderako lekuen garapen ekonomikoa, sozial eta ingurugiro garapenera bideratuta dago, estrategia bateratu baten bitartez lekuko eskualdeko garapen iraunkorra lortzeko.

POCTEFA PROIEKTUA

PATRIM+ egonaldi-proiektua PATRIM+ EFA 251/16 proiektuaren baitan garatu da, Espainia-Frantzia-Andorra Lankidetzako Programa 2014-2020an kokatuta aurkeztu izan dena. Proiektu honetarako gastuak POCTEFAk hartuko ditu bere gain % 65ean, Europar Batasuneko EGEF (FEDER) Eskualde Garapenerako Europako Funtsen kredituei esker. POCTEFA-ren helburua Espainia-Frantzia-Andorra arteko mugalderako lekuen arteko sare sozial eta ekonomikoa sendotzea da. Laguntza hau mugalderako lekuen garapen ekonomikoa, sozial eta ingurugiro garapenera bideratuta dago, estrategia bateratu baten bitartez lekuko eskualdeko garapen iraunkorra lortzeko.